

Emakume biktimak

GENERO-INDARKERIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA
Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Dirección de Atención a las Víctimas de
la Violencia de Género

PENTSA EZAZU

GENERO INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMA ZARA BALDIN ETA



→ Zure **bikotekide** edo **bikotekide ohiaren** aldetik indarkeria jasan edo jasaten baduzu. Indarkeria hori ez da soilik gertatzen eraso fisikoak edo sexualak daudelako; horrez gain, jakin behar duzu indarkeria mota hori ere jasaten ari zarela baldin eta zure bikotekideak edo bikotekide ohiak honako hau egiten dizula sentitzen baduzu:

- >> **kontrolatzen zaitu:** deitzen dizu, behin eta berriro SMSak bidaltzen dizkizu, nora eta norekin joaten zaren azaltzeko eskatzen dizu edo zer egin edo esaten duzun, dirua kontrolatzen dizu edo nola janzten zaren edo; gustatzen ez zaionean, arropaz aldatzeko eskatzen dizu; edo
- >> **bakartzen zaitu:** ez du atsegin zuk lagunak izatea, ez du nahi zeure familia ikustea, edo gutxien zaitu beste pertsona batzuen aurrean, etengabe oihukatzen eta gaitzesten zaitu eta errua zurea dela eta beti oker egoten zarela esaten dizu; edo
- >> **ikaratzen zaitu:** haren beldur zara; iraindu edo lotsarazten zaitu, bere burua hilko duela edo zure seme-alabak beretzat hartuko dituela esaten dizu, pasaporte edo bankuko libretak bezalako agiri garrantzitsuak kentzen dizkizu, hertsatzen zaitu, xantaia egiten dizu, etab...

→ Bikotekide edo bikotekide ohi ez duzun **zeure familiako gizonen baten** aldetik indarkeria fisikoa, psikologikoa edo sexuala jasaten edo jasan baduzu.

→ **Sexu-askatasunaren kontrako delituren** baten biktima bazara edo izan bazara: sexu-erasoa, sexu-abusua, sexu-jazarpena, behartutako prostituzioa, gizakien salerosketa, eta abar”.

Argitaraldia: 1.a, 2011ko ekaina

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Herrizaingo Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastián, 1 kalea. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua: Servicios Redaccionales Bilbainos, S. L. (SRB)

Inprimatzea: mccgraphics

Lege-gordailua: BI-1678/2011

EZ JARRAITU
ISILIK

[illegible]

Gogoratu hau:

- >>> Zu zeure bizitzaren eta zeure gorputzaren jabea zara eta zuk erabaki behar duzu zer egin.
- >>> Ez egin jaramonik klixeei edo ustez bete behar duzunari.
- >>> Ezetz esateko eskubidea duzu; horretarako, fida zaitez sentitzen duzunaz; zerbait atsegin ez baduzu, ez egin zalantzarik, esan ezetz.
- >>> Ez onartu zu pertsona ahultzat hartzerik. Aurre egiozu. Hori zeure burua babesteko era da.
- >>> Konta iezaiozu zer gertatzen zaizun konfiantzako pertsona bati, adiskidea izan zein senitartekoa izan. Bila itzazu laguntzak.
- >>> Kontuan izan hasieran prozesua gogorra izan daitekeela; baina, denbora igaro ahala, egoera horri aurre egiteko hartutako erabakiaz poztuko zarela.
- >>> Asko dira zu orain zauden egoera hori bizi izan duten edo jasaten ari diren emakumeak. Jakin behar duzu

ez zaudela bakarrik!

EUSKO JAURLARITZAKO GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZAK ZURE ESKU JARTZEN DITU ONDORENGO BALIABIDEAK. OSO ERABILGARRIAK IZANGO BAITZAIZKIZU

KONTSULTA
EGIN EZAZU

90



>>>> 24 ordukoa
>>>>> Doakoa
>>>>>> Isilpekoa

- **Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak** zure esku jartzen du emakume biktimei laguntza emateko profesional espezializatuak daramaten telefonoa, edozein dela genero-indarkeria.
- Berehalako arreta anonimoa ematen du eta, zerbitzura deitzen duzunean, eman beharreko urratsei buruzko orientabidea jaso ahalko duzu edo zeure esku dauden baliabideei buruzko informazioa. Hain zuzen, baliabide horietan, nahi izanez gero, arreta pertsonalizatua jaso ahal duzu.
- Deiei 51 hizkuntzatan erantzuten die eta entzumen-urritasuna duten pertsonen arreta eman ahal izateko zerbitzua du.
- Zerbitzu horrekin jar zaitezke harremanetan kasu hauetan:
 - >> Aurrera ezin eginik edo izututa bazaude.
 - >> Zalantzarik baduzu, beldur bazara edo segurtasunik gabe bazaude.
 - >> Norbaitek entzutea nahi baduzu, barruak hustu behar dituzu eta.
 - >> Erabaki berriak hartu nahi badituzu eta nahasita bazaude.
 - >> Halaber dei dezakezu eskubide eta/edo baliabideei buruzko informazioa behar baduzu (bereziki lanaldiz kanpoko orduetan eta/edo iaegunetan).

Leku segurua da

eta inork ez du jakingo deitu duzula, telefonoaren fakturan arrastorik uzten ez baitu; gainera, bertan kasu egiten dizutela sentituko duzu.



JOAN ZAITEZ

ERBITZUA (BLZ)
OSTIA ETA
EGIETAN DAGO

[illegible]

- Borondatezko sarbidea duen zerbitzua da eta bertara joan zaitezke:

- 
- JARDUN**
EZAZU

- Ez izan beldur zeure irregulartasun-egoeragatik.

Informa zaitez!

-



→ Arriskuan bazaude, eska ezazu laquntza, Ertzaintza berehala joango zaizu eta.

→ Ertzaintzak hauxe eskaintzen dizu:

- >>> Arreta urgentziakzko kasuetan.
- >>> Babes-aginduen eskabideak izapidetzea.
- >>> Salaketak jasotzeko 24 orduko Arreta Zerbitzua.
- >>> Arreta Zerbitzu pertsonalizatua.
- >>> Telefono mugikorra (Bortxa) larrialdi-abisuetarako.
- >>> Babes-neurri poliziaak.

→ Ahozko komunikaziorako eragozpenak dituzten pertsonen **600 123 112** telefonora mezu laburra bidal dezakete, datu pertsonalak, aurkitzeko datuak eta genero-indarkeria adieraziz.

OSAKIDETZA

→ Lesio fisikorik edo psikikorik baduzu, edo izan dezakezula uste baduzu, joan zaitez osasun-zentro batera. Azal ezazu lesioen jatorria eta eskatu txosten medikoaren kopia.

GIZARTE-ZERBITZUAK

→ Osasun-laguntzarik behar ez duen lesiorik ez baduzu edo, laguntza jasotakoan, zure udalerriko gizarte-zerbitzuetara ere joan zaitezke eta bertan hau emango dizute:

- >> Zure egoerari irtenbidea emateko laguntza eta aholkularitza.
- >> Laguntza psikologikoa, aholkularitza juridikoa, aldi baterako ostatua, eta abarri buruzko informazioa eta beroriek erabiltzeko aukera.

GAINERA... HAUXE DUZU

GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI
LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA
EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

94 607 56 50 / 945 01 89 03

[illegible]

→ **Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak** diru-laguntzak kudeatzen ditu; hain zuzen, genero-indarkeriaren biktimei laguntza, 900 840 111 Telefono bidezko 24 orduko Arreta Zerbitzuarentzat eta Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarentzat (BLZ); gainera, Ertzaintzarekin eta Osakidetzarekin koordinatuta jarduten du. Zerbitzu horietan guztietan behar duzun guztiaz arreta eskaini eta aholku emango dizute.

→ Bestalde, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Jaurilaritzaren leihatila bakarra da Eusko Jaurilaritzaren eskumeneko beste laguntza edo programetarako, besteak beste:

>> **Etxebizitza-arloko laguntzak:** ekintza positiboko neurriak etxebizitza-arloan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat: Babes Ofizialeko Etxebizitzaren zozketetan alokairu-araubidean kupo berezia gordetzea; salbuespenezko kasu larrietan etxebizitzak zuzen-zuzenean errentan ematea; edo, epai bidez onartutako kasuetan, eskatzailea jabekidea denean, etxebizitzaren erabilera trukatzeko aukera ematea.

>> Enplegu-arloko laguntzak: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ibilbide pertsonalizatuak eskaintzen ditu bere bulego-sarean enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda dauden genero-indarke-riaren biktimak laneratzeko; eta, asmo horrekin, enplegu- eta prestakuntza-programetan lehen-tasuna ematen zaie, haien enplegagarritasuna hobetzeko azken helburua izanik, lan-merkatuan sartzen errazteko asmoz.

Araba

Donostia-San Sebastián, 1
01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel: 945 01 89 03

Bizkaia

Kale Nagusia, 81 – 1. solairua
48011 BILBAO
Tel: 94 607 56 50

Helbide elektronikoa: davvg@ej-gv.es
Web orria: www.euskadi.net/violenciadegenero



**GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI
LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA
EUSKO JAURLARITZAKO
HERRIZAINGO SAILA**

BILBAO

94 607 56 50

VITORIA-GASTEIZ

945 01 89 03

ERTZAINZA 112

**GOGOAN
IZAN!**

>>>24 ordukoa

>>>Doakoa

>>>Isilpekoa



900 840 111

BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA >>>Doakoak

ARABA

900 180 414

BIZKAIA

900 400 028

GIPUZKOA

900 100 928